

## BERGARAKO UDALA ETA MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO BEHIN BEHINEKO HITZARMENA

Bergaran, bi mila eta hogeitalauko urriaren 24an


### BILDU DIRA

Alde batetik, Ainhoa Lete Zabaleta andrea, Bergarako behin-behineko Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari izan.

Bestetik, Miriam Liberal Gonzalez andrea, Bergarako Musika Eskolako lehendakaria, Musika Eskolaren ordezkari izan.

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo

### ADIERAZI DUTE

- 
1. Bergarako Musika Eskola irabazteko asmorik gabeko elkarte dela.
  2. Bergarako Musika Eskolak urte askotan zehar Bergarako ume, gazte eta helduei musika eta kantua ikasteko aukera eman diela, eta horrela hornitu ahal izan direla herriko musika talde eta abesbatzak; horrez gain herriko hainbat festa edo jaialditan parte hartzen duela eta horretan jarraitzeko asmoa duela.
  3. Udalaren ustez, herritarrei zerbitzu hori eta hezkuntza musikala eta dantza ematea onuragarria dela eta horregatik diru-laguntza eman izan duela eta orain ere emateko prest dagoela, baina 2025eko aurrekontuak onartu arte ezin dela zehaztu zenbatekoa zein izango den. Musika Eskolari aurreratuko zaizkion 13.580€-ak 2024/2025 ikasturteko behin betiko diru-laguntzaren kontura joango dira.
  4. Bi aldeek diru-laguntza hau behin behineko hitzarmen baten bitartez arautzea nahi dutela. Hitzarmen honek 2024ko urria eta abendua bitarteko ordainketak arautzen ditu. 2025eko urtarrietik abuztura bitarteko ordainketak, 2024/2025 ikasturteko behin betiko hitzarmenarekin batera udaleko 2025eko aurrekontuak onartutakoan zehaztuko dira.

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen kontratua hitzartu dute

### KLAUSULAK

**LEHENENGOA:** Musika Eskolak orain arte bezala herritarrei musika eta dantza ikasteko aukera emango die 2024/2025 ikasturtean.

Halaber, ondoren jasotakoa ere betetzeko konpromisoa hartzen du:

1. Udaletik beste diru-laguntzarik jaso gabe ekitaldi hauetan parte hartuko du Musika Eskolak:

1.1.-Bergarako Musika Eskolako gazteen bandak ondorengo ekitaldietan parte hartuko du: San Martin jailetako haurren danborradan eta aratusteetako kalejiran.



Begarako  
Udala

1.2.-Begarako Udalak antolatzen duen Udazken kulturalaren barne, Bergarako Musika Eskolako talde ezberdinek emanaldia eskainiko dute.

1.3.-Herriko talde ezberdinek eskaintzen duten Gabonetako kontzertuan Bergarako Musika Eskolak beharrezkoak diren antolaketa/bitartekaritza lanak egingo ditu.

1.4.-Begarako Musika Eskolako talde ezberdinek udaberriko kontzertua eskainiko dute.

1.5.-"Apirilean Musika" egitaraua antolatuko du.

1.6.-Udalak eskatuta, honek antolatu dezakeen beste edozein ekitalditan parte hartuko du, aurrez elkarrekin adostuta.



2.- Txistulari Bandari entseguetarako gela bat utziko dio Musika Eskolak.

3.- Herritarrei edozein ekitaldiren berri emanez edo zerbitzu bat eskainiz propaganda egiten badu, Udalaren laguntza duela adieraziko du.

Halaber, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Gutxienez euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena gaztelerazkoaren aurretik eginez.


Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelerazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak hizkuntzaren aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

- Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

**BIGARRENA:** Bergarako udalak 2024/25 ikasturteko diru-laguntzaren aurrerapen moduan; 2024ko urria, azaroa eta abenduan 13.580€ ordainduko dizkio Bergarako Musika Eskolari. Udalak ordainketa bakarrean ordainduko du zenbateko hau hitzarmena sinatutakoan.

Ordainketa egin baino lehen udalak berariaz konprobatuko du Gizarte Segurantza eta Foru Ogasuneko ordainketetan Musika Eskola egunean dagoela.





Begarako  
Udala

**HIRUGARRENA:** Musika Eskola jakinean geratzen da eta onartzen du 2024/2025 ikasturtea bukatu eta gehienez 4 hilabetera (2025eko abendua baino lehen), aurreko ikasturteko gorabeherak eta hurrengorako asmoak jasotzen dituen txosten bat aurkeztu beharko diola Udalari, eta honekin batera urteko kontuak eta aurrekontuak. Kontuok hirugarren batek egindako auditoria izan beharko dute.

Halaber, Jasotako beste diru-laguntzen agiriak edo, diru-laguntzarik jaso ez bada, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da.

Kontabilitateko dokumentazio guztia ikuskatu ahal izango du Udalak.

Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gorde beharko dituzte, gutxienez bost urtez.

Ikasturtean justifikatutako gastuak aurrekontuan aurreikusitakoak baino txikiagoak badira, diru-laguntza proportzio berdinean gutxituko da. Bergarako Musika Eskolak diferentzia itzuli egin beharko dio Udalari Udalak zehaztutako epean.

Egindako gastuak berriz, aurkeztutako aurrekontuan jasotakoak baino handiagoak badira, Udalak onartutakoa baino diru-laguntza gehiago ez du emango.

**LAUGARRENA:** Udalak emango duen diru-laguntzaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan diru-laguntza ematen den jardueraren kostua baino.

**BOSTGARRENA:** Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

**SEIGARRENA:** Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru-laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

**ZAZPIGARRENA:** Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

**ZORTZIGARRENA:** Kontratu honetan aurreikusita ez dagoen guztian, Estatuak, diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an hartutako 38/2003 Legea eta lege hori garatzen duen gainontzeko legedia aplikatuko da.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

**Begarako behin-behineko Alkatea**



Ainhoa Lete Zabaleta

**Begarako Musika Eskolako  
Lehendakaria**



Miriam Liberal Gonzalez